

2020ko UZTAILEREN 23an, UPV/EHUko ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAREN ESKOLAKO BATZARRAREN BATZORDE IRAUNKORRAK OHIKO BILERAN HARTUTAKO ERABAKIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian, aipatutako Eskolako Batzorde Iraunkorraren aztergai bakoitzaren proposamenen ondoan beltzez adierazten da aurkeztu diren bezala onartu diren, zuzenketaren batekin onartu diren, erabakirik hartu den ala baztertu egin diren:

GAI ZERRENDAA

1. Aurreko aktaren onespena. **Onartua**
2. 2020-2021 ikasturterako Irakaskuntza Egokitzeko Planaren onespena. **Onartua.**
3. Galderak eta eskaerak.

Dokumentu honi honako **ERANSKINA** gehitzen da:

1. **ERANSKINA:** 2020-2021 ikasturterako Irakaskuntza Egokitzeko Plana.

Donostia, 2020/07/23

Izp. / Fdo.: Jose Miguel Rico Martinez
Arkitektura GETeko Idazkari Akademikoa

IRAKASKUNTZA PLANA 2020-2021 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena.....	2
2.	Gure plangintzaren oinarrizko printzipioak	2
2.1.	Babeserako osasun neurriak.....	2
2.2.	Irakaskuntzarako eredua eta plangintza	2
3.	Arkitektura Eskolan irakaskuntza antolatzeko proposamenak.....	3
3.1.	Maila/titulazioetarako ordutegiak eta gelak.....	3
3.2.	Irakaskuntza presentziala, bimodala edo telepresentziala mailaka/titulazioka	5
3.3.	Ordenagailuko praktikak	5
4.	I. ERANSKINA, UPV/EHUren "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko argibideak" dokumentukoa.....	6

1. Aurkezpena

Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bizi dugun egoera larriak, ziurgabetasunak eta erakundeek ezarriko lan baldintzek -Arkitektura Goi Eskola Teknikoak bete beharrekoak- ikastegian, eta titulazio guztietan, ikaskuntza-irakaskuntza jarduera berrantolatu beharra ekarri dute.

Agiri honetan laburbildu ditugu zuzendaritzaren proposamenak irakaskuntza berrantolatzeko.

Titulu eta maila bakoitzerako zehaztasunak eta adibide zehatzak eranskinetan daude jasota.

2. Gure plangintzaren oinarrizko printzipioak

Agiri honek oinarri dauka UPV/EHUren "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko argibideak" dokumentua.

2.1. Babeserako osasun neurriak

- Ikasleen artean eta irakasle eta ikasleen artean 1,5 metroko distantzia gordetzea. Posible ez denean, maskara eta 1 m-ko tarte bat.
- Pilaketak saihesteko, mailako/titulazioko ikasleen sarrera eta irteera orduak tartekatu egingo dira.
- Eskola telepresentziala daukatenean, ikasleak ezin izango dira ikastegian bertan egon.
- Ikasleak ez daitezten egon 2 ordu baino luzeago maskara jantzita, 15 minutuko atsedena egingo da 2 eskola ordurik behin.
- Mugatu egingo dira ikasleen joan-etorriak ikastegian, eta, beraz, ahal dela ikasleak beti gela bera eta mahai bera erabiliko du.

2.2. Irakaskuntzarako eredua eta plangintza

- Irakaskuntza osoa, % 100, presentziala izango da. Hala ere, irakaslearen egoera pertsonala kontuan izanda, eskaria egin ahal izango da eta eskola modu telepresentzialean eman osorik edo modu mistoan.
- Ez da onartuko soil-soilik eskola telepresentzialak ematea talde eta lauhileko bakoitzeko 2 irakasgai baino gehiagotan, eta 15 kreditu baino gehiago, master tituluen kasuan. Azken neurri horren ondorioz, ezingo da ikasturte oso bat modalitate ez-presentzialean eman kasu bakar batean ere.
- Zehaztuta dago irakaskuntza bimodalerako aukera: irakaslea eta ikasle gehienak gelan bertan (modu presentzialean) eta arrazoi egiaztatuengatik fakultatera joan ezin diren ikasleak BBC bidez, eskaria eginda (telepresentziala).
- Eskolak goizez eta arratsaldez izango dira: 1., 3. eta 5. mailako eskolak goizez izango dira eta 2. eta 4. mailakoak, arratsaldez.
- Ikastegiko gelak eta tailerrak banatzean, ahalegina egingo da ikasleak ahalik eta gutxien mugitzeko eta ikasleak beti gela eta tailer berean egoteko. Beraz, hirugarren solairuan, goizean, lehenengo mailako ikasleak egongo dira eta, arratsaldean, bigarren mailakoak. Hirugarren solairuan, goizean, hirugarren mailako ikasleak egongo dira eta, arratsaldean, laugarren mailakoak. Beheko solairuan, goizean, bosgarren mailako ikasleak egongo dira eta, arratsaldean, graduondokoak.

Hautazko irakasgaiak beheko solairuan, sotoan eta Zipitria zentroan arkitekturak dituen geletan emango dira.

- Berriro ere konfinamendurik balego, irakaskuntza telepresentziala izango da.
- Pilaketak saihesteko, ikastegiko sartu-irtenak mailaren arabera izango dira eta aldatu egingo dira egunaren arabera. Ikastegira sartzeko, goizean, ordu erditik ordu erdira izango dira txandak, 8:30ean hasi eta 9:30era; arratsaldean, 14:30ean hasi eta 15:30era. Irteetako, 12:30ean hasi eta 14:30era eta 19:00an hasi eta 20:30era.
- Arkitektura Eskolan 4 gela egongo dira irakaskuntza bimodalerako prestatuta. 3.1 gela, lehenengo eta bigarren mailarako; 2.1 gela, hirugarren eta laugarren mailarako; 1.1 gela, gela handia izanik, gainontzekoen osagarri izango da; T-0.4/0.5 gela, bosgarren mailarako eta graduondokoetarako. Eskari asko egonez gero, gela gehiagorako ekipamendua eskatuko da irakaskuntza bimodala eman ahal izateko.

3. Arkitektura Eskolan irakaskuntza antolatzeko proposamenak

3.1. Maila/titulazioetarako ordutegiak eta gelak

Arkitektura Eskolak bere gelak ditu, baina Zipitria ikasgelategiko gela batzuk ere erabiltzen ditugu. Pilaketak saihesteko eremu komunetan, ahalik eta zabalen erabiliko da ordutegi tartea eta optimizatu egingo da erabilgarri dauden guneen erabilera. Plangintza honen bidez, asko murriztu da erakinetan (ikastegian eta ikasgelategian) eta txanda bakoitzean (goizean/arratsaldean) pilatzen den ikasle kopurua.

Arkitekturaren Oinarrietako Gradua - txandak eta gunek mailaren arabera:

a. Lehenengo maila: irakasgai guztiak **goizez** (08:30etik 14:30era), **ikastegiko hirugarren solairuan**.

Gaztelaniazko taldeak: **3.1 gela** (edukiera: 96 lagun; 48 maskararik gabe segurtasun tartea gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **3.7, 3.8 eta 3.9 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta). Eskola teorikoko talderen batean 48 ikasle baino gehiago egonez gero, **1.1 gela** erabili ahal izango du (edukiera: 120 lagun; 60, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta).

Euskarazko taldeak: **3.2 gela** (edukiera: 72 lagun; 36 maskararik gabe segurtasun tartea gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **3.4, 3.5 eta 3.6 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta). Eskola teorikoko talderen batean 36 ikasle baino gehiago egonez gero, **3.3 gela** erabili ahal izango du (edukiera: 96 lagun; 60, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta).

Unean-unean, erabili ahal izango dira kalkulu zentroan **CC1** (36 lagun; 20, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta) eta **CC2** (60 lagun; 36, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta) Matematika irakasgaietarako; **4.2 estatuen gela** Marrazketarako eta Zipitriako **2.8 gela** Eraikuntzaren Analisia irakasgaietarako taldeak banatzeko.

b. Bigarren maila: irakasgai guztiak arratsaldean (14:30etik 20:30era), **ikastegiko hirugarren solairuan**.

Gaztelaniazko taldeak: **3.1 gela** (edukiera: 96 lagun; 48 maskararik gabe segurtasun tartea gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **3.7, 3.8 eta 3.9 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta). Eskola teorikoko talderen batean 48 ikasle baino gehiago egonez gero, **1.1 gela** erabili ahal izango du (edukiera: 120 lagun; 60, maskararik gabe segurtasun tartea gordeta).

Euskarazko taldeak: **3.2 gela** (edukiera: 72 lagun; 36 maskararik gabe segurtasun tarte gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **3.4, 3.5 eta 3.6 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta). Eskola teorikoko talderen batean 36 ikasle baino gehiago egonez gero, **S.3 gela** erabili ahal izango du (edukiera: 96 lagun; 60, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).

Unean-unean, erabili ahal izango dira kalkulu zentroan **CC1** (36 lagun; 20, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eta **CC2** (60 lagun; 36, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) Matematika irakasgaietarako; **4.2 estatuen gela** Marrazketarako.

c. Hirugarren maila: irakasgai guztiak **goizez** (08:30etik 14:30era), **ikastegiko bigarren solairuan**.

Gaztelaniazko taldeak: **2.1 gela** (edukiera: 96 lagun; 48 maskararik gabe segurtasun tarte gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **2.7, 2.8 eta 2.9 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).

Euskarazko taldeak: **2.2 gela** (edukiera: 72 lagun; 36 maskararik gabe segurtasun tarte gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **2.4, 2.5 eta 2.6 tailerrak** (edukiera: 30 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).

Ingelesko taldeak **2.3 gela** erabiliko du (edukiera: 72 lagun; 36, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eskola teorikoetarako eta praktiketako taldeetarako.

d. Laugarren maila: irakasgai guztiak arratsaldean (14:30etik 20:30era), **ikastegiko bigarren solairuan**.

Gaztelaniazko taldeak: **2.1 gela** (edukiera: 96 lagun; 48 maskararik gabe segurtasun tarte gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **2.7, 2.8 eta 2.9 tailerrak** (edukiera: 32 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).

Euskarazko taldeak: **2.2 gela** (edukiera: 72 lagun; 36 maskararik gabe segurtasun tarte gordeta), eskola teorikoetarako; praktika taldeetarako, **2.4, 2.5 eta 2.6 tailerrak** (edukiera: 30 lagun; 26, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).

Ingelesko taldeak **2.3 gela** erabiliko du (edukiera: 72 lagun; 36, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eskola teorikoetarako eta praktiketako taldeetarako.

e. Bosgarren maila: enborreko irakasgai guztiak goizez (8:30etik 14:30era), **ikastegiko beheko solairuan**.

Gaztelaniazko taldeak **T-0.2/0.3 gela** erabiliko du (edukiera: 56 lagun; 28, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eskola teorikoetarako eta praktiketako taldeetarako.

Euskarazko taldeak **T-0.4/0.5 gela** erabiliko du (edukiera: 56 lagun; 28, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eskola teorikoetarako eta praktiketako taldeetarako.

Ingelesko taldeak **0.6 gela** erabiliko du (edukiera: 28 lagun; 21, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eskola teorikoetarako eta praktiketako taldeetarako.

Hautazko Irakasgaiak: ikastegiko geletan (gelak: S2, S3, 0.2-0.3, T-0.4/0.5) edo Zipitrian (gelak: 3.6, 3.7, 3.8, 3.9, 3.11 eta 2.8), matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera.

Graduondokoetarako proposamena:

- Unibertsitate masterra: Arkitektura. Taldeak goizez eta arratsaldean. 4.1 master gela erabiliko dute (edukiera: 64 lagun; 32, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta) eta Gradu Aretoa (edukiera: 40 lagun; 20, maskararik gabe segurtasun tarte gordeta).
- Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa Masterrak, Eraikitako Ondarearen Birgaitzea: arratsaldeko taldeak T-0.4/0.5 gela eta Gradu Aretoa.

3.2. Irakaskuntza presentziala, bimodala edo telepresentziala mailaka/titulazioka

Irakaskuntza erabat presentziala izango da. Irakaskuntza bimodala emango da ikasleren batek egiaztatutako arrazoiengatik etxetik ikasteko eskatzen duenean (zehaztutako aldian); baditugu gelak horretarako prestatuta.

Irakaskuntza telepresentziala emango da soilik eta baldin egiaztatutako arrazoiaren bat dagoenean.

3.3. Ordenagailuko praktikak

Ordenagailuko praktiken kasuan, gure ustez ezinezkoa da eskolako bertako ekipoak erabiltzea eta desinfektatzea orain arte egin bezala, eta, gainera, ordenagailu gelak txikiak dira eta ekipoak eta aulkiak bata bestearengandik oso hurbil daude.

Beraz, gure proposamena da ikasleak praktiketako gelan bertan egotea ordenagailuko praktikak egiteko eta jarduera egiteko bere ordenagailu eramangarri edo tableta erabiltzea. Praktika hauetan taldean egiten denez lan, nahikoa da taldeko batek ordenagailua izatea. Kasu honetan gutxienez 1 m-ko distantzia gordeko da eta beti izan beharko da jantzita maskara. Irakasleak maskara jantziko du ikasleengana hurbiltzen denean zalantzak argitzera.

Gerta daiteke lizentziadun softwarea erabili behar izatea, ikasleek ez dutena, eta horrelakoetarako kontuan izan ditugu:

- Irakasgai askotan software librea ari da sustatzen eta, beraz, ikasleek arazo barik instalatu ahal izango dute.
- Lizentziadun softwarea erabiltzen duten irakasgaietarako, ecampusa aztertzen ari da arazoa nola konpondu eta aukera bat izan daiteke EHUappstore erabiltzea (harremanetan egongo gara beste aukera batzuk aztertzeko).

Ikasle batzuek arazoak izan ditzakete beren ordenagailua erabiltzeko, eta horrelakoetarako kontuan hartu dugu:

- Argibideen dokumentuan, UPV/EHUK zehaztu du: "ordenagailuak maileguan uzteko zerbitzu bat eta/edo Internetera konektatzeko laguntza antolatzea, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat".
- Arkitekturako ikasleren batek arazorik badauka mailegu zerbitzua erabiltzeko, ikastegiko bertako ordenagailu gelako ekiporen batzuk presta daitezke, baina, betiere, distantzia gordeta, eta ikasleak beti erabili beharko du ordenagailu bera eta ezin izango du beste inork erabili.

4. I. ERANSKINA, UPV/EHUren "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko argibideak" dokumentukoa.

IRAKASKUNTZA EGOKITZEKO PLANA

IKASTEGIA: ARKITEKTURA GET

Eskolako Batzarrako Batzorde

**Iraunkorrean onartua 2020ko uztailaren
 23an**

PLA_KOD	PLANA	Kreditu presentzialen ehunekoa	Kreditu telepresentzialen ehunekoa
GARQUI21	ARKITEKTURAREN OINARRIETAKO GRADUA	100	0
ARQUI12B	ARKITEKTURAKO GRADUA	100	0
RERGI901	BIRGAITZE MASTERRA	100	0

**Ehunekoa kalkulatzeko, titulu bakoitzean eskainitako irakasgai guztiak hartuko dira kontuan.

***Titulu guztietan, eta osasun agintariek baimentzen badute betiere, irakaskuntzaren % 75 gutxienez presentziala dela bermatu beharko da.